




KOSTUAK

Proiektu bat aurrera eramateko ezinbestekoa da sortzen diren kostu guztiak ondo identifikatzea eta sailkatzea. Gure kasuan, ura edateko ohitura hobetzea helburu duen botila adimenduna merkaturatzeko, bi kostu mota nagusi bereizten ditugu: alde batetik, hasierako inbertsioa, eta bestetik, negozioa martxan dagoenean sortzen diren kostuak. Horrez gain, ingurumen eta gizarte kostuak ere kontuan hartzea garrantzitsua da.

Gure proiektuan, hasierako inbertsioa nahiko garrantzitsua da, nahiz eta, erabiltzen den teknologia sinplea izan. Lehenik eta behin, diseinu eta prototipoen kostuak daude 5000€ izango ziren inbertsioak. Botilaren forma, tapoiaren funtzionamendua eta kolore-sistemaren erabilera ondo pentsatu behar dira, erabiltzailearentzat eroso eta erraza izan dadin. Horretarako, lehen prototipoak sortu eta probak egitea beharrezkoa da, eta horrek kostu ekonomiko bat dakar.

Ekoizpen hasierako kostuak ere kontuan hartu behar dira. Botilak muntatzea, osagai elektronikoak jartzea eta kalitate-kontrola egitea beharrezkoa da, horretarako izan beharko genituzke 4400€ inbertitzeko.

Gainera, biltegiatze kostuak ere sortzen dira, produktuak gorde eta saltokietara eramateko. Gure proiekturako, botila guztiak gordetzeko lekua alokatzea beharrezkoa da. Biltegi honek 50 m² inguruko espazioa izango du, eta horrek aukera emango digu botilak kaxetan eta modu ordenatuan gordetzeko, baita etorkizunean ekoizpena handitzen badugu ere. Alokairuaren prezioa egoera honetan 600 € hilero ingurukoa izango litzateke.

Hasierako inbertsio guztiak kontuan hartuta, gure proiektuak gutxi gorabehera 10.000 euroko hasierako inbertsioa beharko luke. Inbertsio hau estaltzeko, aurrealmentak, diru-laguntzak edo inbertitzaile txikiak bilatzea aukera egokiak lirateke.

Behin proiektua martxan dagoenean eta botilak saltzen hasten direnean, kostuak bi multzotan banatzen dira: kostu finkoak eta kostu aldakorak. Gure proiektuan, kostu finko nagusien artean biltegiatzea dago, botilak gordetzeko espazio bat behar delako. Halaber, marketing jarraitua egin behar da, sare sozialetan presentzia mantentzeko eta bezero berriak erakartzeko. Bestalde, mantentze teknika ere



kostu finko bat da. Nahiz eta sistema sinplea izan, kolore-sistemaren funtzionamendua noizean behin berrikusi eta eguneratu behar da. Azkenik, kudeaketa eta administrazio gastuak ere kontuan hartu behar dira, hala nola eskaeren kontrola edo hornitzaileekin harremanak.

Kostu aldakorrak ekoizpen edo salmenta kopuruaren arabera aldatzen diren kostuak dira. Zenbat eta botila gehiago ekoitzi eta saldu, orduan eta handiagoak izango dira kostu hauek. Kostu aldakor nagusia materialen kostua da: botila bakoitzeko materiala, tapoia eta bateria. Horrez gain, ekoizpen kostua ere aldakorra da, unitate gehiago muntatzen diren heinean lan gehiago behar delako. Garraio kostuak ere salmenten arabera handitu egiten dira, botila gehiago bidali behar direlako.